



Gabriel Jauregi
Batxilergorako materialak

Antzinako Egipto eta Mesopotamia

José Irizar



Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma
Batxilergorako materialak

16

Antzinako Egipto eta Mesopotamia

Jose Irizar



Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma (iruzkigintzarako testuak)
2. Mikroekonomiaren oinarriak
3. Energia baliabideak. 1. Batxilergo teknologikoa
4. Arte marrazketa
5. Oinarrizko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta mekanismoak.
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan
7. Filosofiaren historia
8. XIX. eta XX. mendeetako gizarte filosofia
9. Motorrak
10. Logika sinbolikoa
11. Ekonomia eta enpresen antolaketa: Ekonomia-politika; Merkataritza saila eta marketina
12. Bolumena
13. Erromanikoa
14. Etorकिनak eta esplotazioa; kulturantzatasuna eta integrazioa
15. Euskal Artea Aztergai
16. Antzinako Egipto eta Mesopotamia

Argitaraldia: 1. a, 2009ko urria

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Peru Urrutia Bilbao

Fotokonposizioa: mccgraphics

Inprimaketa: mccgraphics

ISBN: 978-84-457-3001-0

L.G. BI-2494-09

AURKIBIDEA

1.	Antzinako Egipto	5
2.	Mesopotamia	71

Antzinako Egipto

Jose Irizar

AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	9
2.	Ezaugarri orokorrak	13
3.	Kokapena	17
4.	Ekonomia	21
5.	Gizartea	25
6.	Faraoiak eta gobernua.....	29
7.	Egiptoko kultura.....	33
8.	Erljioa.....	37
9.	Artea.....	43
10.	Ondarea eta eragina	49
11.	Laguntzak eta kontsultak	53

Auzkezpena

1

Azken urteotan, Egiptoko zibilizazioaren zenbait kontu zabaldu dira, eta denok entzun dugu momiari (filmekoa) buruzko zerbait. Denok ezagutzen dugu piramideen irudia edo Tutankamonen hil-mozorroa; izan ere, Egiptoko istorioak eta pertsonaiak behin eta berriz agertzen ari dira filmetan eta joko digitaletan (**1. irudia**).*

Horretaz aparte, bidaiak antolatzen dituzten enpresentzat gero eta garrantzi handiagoa dauka, Egiptok jendea erakarri egiten baitu, jakin-mina sortzen baitu. Baina antzinako Egiptoren garrantzia ez datza turismoan, edo gaurko jokoetan, edo filmetan, baizik eta egiptoarrek sortu zuten zibilizazioan. Izan ere, egiptoarrek antzinako mundu osoa liluratu zuen zibilizazioa sortu zuten, eta gaur arte iritsi diren aztarnak utzi zituzten.

Egiptoarren zibilizazioa ezagutu nahi baldin badugu, tresna ugari erabil dezakegu, zibilizazio horrek arrasto ugari utzi baitzuen; besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu: idazteko sistema hirukoitza (hieroglifikoa, hieratikoa eta demotikoa) (**2. irudia**), hilobi eta eraikuntza asko (piramideak, adibidez), eta hilobi horien barruan aurkitutako objektuak, eta hango paretetako pinturak eta erliebeak.

* Irudiak 56. orrialdean eta ondorengoetan ikus daitezke.

Ezaugarri orokorrak

2

Esan daiteke antzinako Egiptoko zibilizazioaren lehen ezaugarria **iraupena** izan zela. Egiptoko zibilizazioak hiru milurteko iraun zuen; beste zibilizazio batzuekin alderatzen baldin badugu, haiek baino askoz luzeagoa izan zen. Adibidez, Erromatar Inperioan pentsatzen baldin badugu, konturatuko gara 1.000 urte baino laburragoa izan zela; alegia, egiptoarren edo faraoien zibilizazioaren herena.

Bigarren ezaugarria **isolamendua** da (**3. irudia**), eta horrek ekarri zuen zibilizazioaren **originaltasuna**, Egiptok kanpotik eragin gutxi jaso baitzituen. Adu batzuek diote antzinako egiptoarrek uste zutela munduko herri bakarra zirela eta xenofobo samarrak zirela, baina Egiptoko aztarnak alboko herrien aztarnekin (Mesopotamiakoekin) konparatzen baldin baditugu, originaltasun hori benetakoa dela ikusiko dugu.

Hirugarrena **jainkozaletasuna** da. Egiptoarren ekintza guztietan eta haiek utzitako aztarna guztietan ikus daiteke erlijioaren garrantzia eta egiptoarrek beren jainkoei ematen zieten garrantzia. Herodoto Greziako bidaiari famatuak hau zioen: “munduko herririk erlijiosoena Egipto da” (**4. irudia**).

Eta azken ezaugarri orokor bat ere aipatu beharra dago: **faraoiaren garrantzia**. Antzinako Egiptoko gobernuan eta gizarte-egituran, zentroa faraoia zen. Garrantzi hori hain handia zen, ezen egiptoarrek faraoiak **jainkotu** zituzten eta jainkoak balira bezala gurtzen zituzten faraoiak; horren ondorioz, faraoiei eraiki zizkieten hilobi erraldoienak (piramideak).

Kokapena

3

Kokapen kronologikoa. Egiptok oso historia luzea izan du, 5.000 urte baino gehiagokoa. Hori horrela izanda ere, guk faraoien garaia erreparatuko diogu. Adituek diotenez, Nilo ibaia-aren ibarrean K.a. IV. milurtekoan sortu zen faraoien zibilizazioa, eta K.a. I. milurtekoa bukatu arte iraun zuen, erromatarrek Egipto menderatu (Kleopatra famatuaren garaian) eta haien inperioaren barruan sartu arte (**5. irudia**).

Horrela, esan dezakegu hiru milurte iraun zuela faraoien garaia, baina epe luze hori ez zen beti lasaia izan. Une batzuetan, faraoien boterea oso handia izan zen; Egipto osoa, Niloren ibilbide osoa (Mediterraneotik gaur egungo Sudaneraino. Begiratu mapari) eta baita kanpoko lurralde batzuk ere (gaurko Palestina, adibidez), kontrolpean zituen faraoiak. Baina beste une batzuetan, Egiptoren batasuna puskatu egiten zen, eta delta eta ibarra bereizi egiten ziren. Bakoitzak botere independentea zuen, edo kanpotik etorritako herri inbaditzaile batek menderatu hartzen zuen Egipto (**6. irudia**).

Irizpide horri jarraituz, Egiptoko historiak hiru inperio eta bi bitarteko garaia dituela diote historialariek: **Inperio Zaharra** (K.a. 2778-2260), lehen bitarteko garaia (K.a. 2260-2160), **Inperio Ertaina** (K.a. 2160-1778), hiksoen inbasioaren garaia edo bigarren bitarteko garaia (K.a. 1778-1580) eta **Inperio Berria** (K.a. 1580-1085). Geroago, azken milurtekoan, kanpoko inperioek (asiriarrak, persiarrek, greziarrak eta erromatarrek) behin eta berriz bereganatu zuten Egiptoko Erresuma. Baina ideia garrantzitsu bat azpimarratu behar da: hiru milurtekoan aldaketa horiek ez zituzten Egiptoko zibilizazioaren oinarritzko ezaugarriak eta kultura aldatu, eta, gorabehera horien gainean, faraoien boterea eta Egiptoko betiko erlijioa behin eta berriz inposatu ziren.

Antzinako Egiptoren kokapen kronologikoa egiten dugunean, bigarren irizpide garrantzitsua hartu behar dugu kontuan: egiptoarrek urteak zenbatzeko erabiltzen zuten sistema ez zen guk dugun sistema —adibidez, Ramses II.aren erregealdia 1213. urtean bukatu zen (gure egutegiak, egutegi gregoriotarrak, 450 urte besterik ez ditu)—, eta zenbatze garrantzitsu hori egiteko, faraoi-zerrenda erabiltzen zuten eskribauek, eta faraoi jakin baten erregealdiaren arabera kokatzen zituzten gertakizunak (adibidez, “goseterik gogorrena Ramses faraoiaren erregealdiaren hirugarren urtean etorri zen”). Faraoien zerrenda horrek 31 faraoi-familia edo **dinastia** ditu, eta Egiptoko historia politikoa ezagutzeko tresna garrantzitsua da (**7. irudia**).

Kokapen geografikoa. Zibilizazio baten kokapena egiteko datu fisikoren batzuk ezagutu behar ditugu: non sortu zen eta zein ezaugarri fisikoren menpe (klima, ibaiak, haranak, mendiak, landare motak...) bizi behar zuen zibilizazio horrek. Horretaz hiz egiten ari gara, kokapen geografikoa aipatzen dugunean.

Dakigunez, Egipto Afrikako ipar-ekialdean dago, eta Afrikako ibairik luzeenak (**Nilok**) zeharkatzen du herrialde osoa, hegoaldetik iparralderantz. Baina datu geografiko garrantzitsuena Egiptoko latitudea da. Zergatik? Egiptoko latitudea tropikala delako (Assuan 24° iparraldeko latitudean dago, eta Alkairo, 30°-an). Latitude horretako tenperaturak oso altuak dira, eta, euri falta dagoenez, basamortua (Saharako basamortua, hain zuzen) zabaltzen da (**8. irudia**). Eredu hori oso zaila da bizitzeko; hori dela eta, biztanleria-hutsune izugarria dago Saharako basamortuan. Latitudeaz eta klimaz aparte, gogoan izan behar dugu Niloren ibilbidea bi zatitan bereizten dela: **ibarra** edo harana, oso luzea (1.000 km gutxi gorabehera, gaurko Egipton) eta meharra (25 km baino gutxiago puntu gehienetan), eta **delta**, oso zabala eta handia (Euskal Herriko azalera baino handiagoa dauka).

Baina, Egipton, Nilo ibaiak urtero gainezka egin, eta uholde handia sortzen zuen. **Uholdeak** urez betetzen zuen ibaiaren ibarra, eta urtero lohi-geruza uzten zuen. Urtero ekarritako lohiak

eta urak nekazaritza egiteko aukera sortzen zuten. Herodoto greziar idazle famatuak hau zioen: “Egipto Niloren oparia da”. Baina, zein da uholde horren zergatia? Uholdea urtero etortzen da uda partean, Afrikako ekialdeko mendietako euri-jasak ekarriz. Afrikako iparraldean euririk ez dagoenean (uda delako), Nilok tropikoetako euri-jasen urak ekartzen ditu, eta Egiptoko lurra-
ren emankortasuna biderkatzen du (**9. irudia**).

Beste datu geografiko garrantzitsu bat Egiptoren kokapena da. Egiptoko antzinako zibiliza-
zioa Niloren ibarrean sortu zen, baina **basamortuak** inguratzen du ia haran osoa, eta, zenbait
milurtekotan, basamortua izan zen Egiptoren babesik onena. Basamortuaz gain, itsasoek ere
(Mediterraneoak eta Itsaso Gorriak) inguratzen eta babesten dute Nilo ibarra; beraz, Egiptora
sartzeko aukerak oso mugatuak dira. Hortik dator, batez ere, antzinako Egiptoren **isolamen-
dua**.

Bukatzeko, basamortuak antzinako aztarnak gordetzeko duen garrantzia aipatu behar da;
izan ere, basamortuko klimak (hezetasun faltagatik) oso ondo zaindu ditu faraoien eta beste
pertsoneia batzuen gorpuzkiak (**10. irudia**).

Ekonomia

4

Egiptoko zibilizazioaren ekonomiaren oinarria **nekazaritza** zen. Nilok ureztatzen zituen lurretan, garia, garagarra, lihoa, oliba, mahatsa, pikua eta abar lantzen zituzten, eta, aldi berean, abere ugari zaintzen zituzten. Nekazaritza eta abeltzaintza oso oparoak zirenez, Egiptoko ekonomiaren oinarriak eta beste ekimen ekonomikoen (merkataritza, adibidez) sostengua ziren (**11. irudia**).

Baina Niloren uholdea, berez, oso uholde suntsitzailea zen (gaur presen bidez kontrolpean mantentzen dute urteko uholde hori) eta egiptoarrek uholdea zehatz-mehatz noiz zetorren, zenbatekoa zen (nilometroaren bidez) jakin behar zuten. Beraz, uholdea kontrolatzen eta uraren indarra baretzen ikasi behar izan zuten; eta, horrez gain, uholdea joan ondoren, ekarritako ura gordetzea ere beharrezkoa zen. Horretarako, ubideak, dikeak eta urmaelak eraiki behar izan zituzten, eta —ibarra oso luzea denez— lurraldeen arteko koordinazio-lanak ere martxan ipini behar izan zituzten (**12. irudia**).

Uholdea noizkoa zen eta nolakoa zen jakiteko, lana antolatzeko, soberakinak pilatzeko eta, beharrezkoa zenean, banatzeko, oso garrantzitsuak ziren faraoiaren funtzionarioak; normalean, eskribauak eta apaizak. Horien guztien gainean, sistema osoa kontrolatzen eta zuzentzen faraoia zegoen. (Gogoratu Bibliako Josefen istorioa eta faraoiaren amesgaiztoa).

Nekazaritza-oinarri horren gainean, beste ekimen ekonomikoak sortu ziren, eta, adibidez, egiptoarrek merkataritza-harreman oparoa zuten gaurko Sudaneko lurrekin, Afrikako adarreko erresumekin eta Mediterraneoaren inguruan zeuden lurrekin. Mediterraneoan —eta baita beste zenbait puntutan ere— feniziarrek kontrolatzen zuten Egiptoko merkataritza hori, eta badirudi faraoi baten (Nekao izenekoa) agintepean, itsasontziz, Afrika osoa inguratu zutela feniziarrek (**13. irudia**).

Aditu batzuek kontrako ideari eusten diote. Haien ustez, kanpoko merkataritzari dagokionez, Egipto oso itxia zen, eta egiptoarrak ia **autarkikoak** ziren. Baina hori Inperio Zaharraren garaian gerta zitekeen, K.a. II. eta I. milurtekoetan kanpoko merkataritzaren testigantza ugari baitago; eta kanpotik, esklaboak, urrea, bolia, animalia arrotzak eta Egipton ez zeuden metalak ekartzen zituzten; egiptoarrek, ostera, artisauek egindako gauzak saltzen zituzten.

Gizarte

5

Nekazari-zibilizazioetan, gizarte-talderik garrantzitsuena nekazarien taldea da. Nekazariak lurra landu, uzta hartu, alea eta lastoa bereizi, eta, garia eho ondoren, ogia prestatu behar zuten. Horretaz aparte, abereak zaindu, abereak basapiztietatik babestu, eta abereekin egiten ziren lan guztiak bete behar zituzten. Gainera, funtzionarioek behartuta, ubideak hustu, dikeak mantendu, eta eraikuntza sakratuetan (tenpluetan, piramideetan, eta abarretan) lan egin behar zuten. Historialari batzuek diote oso bizitza gogorra pairatu behar zutela, baina garaikide batek, Herodoto greziarrak, iritzi zeharo kontrakoa zuen, eta esaten zuen ia ahaleginik egin gabe sostengua ziurtatua zuela Egiptoko nekazariak (*fellah*) (**14. irudia**).

Ziurra da Antzinako Egiptoko zibilizazioaren distira nekazarien lanean oinarritzen zela, nekazariak ordaindu behar baitzituzten ia **zerga** guztiak; eta, horrez gain, lan publiko guztietan parte hartu behar zuten, eta garai hartako estatua edo administrazio-sistema osoa mantendu. Zentzu horretan esan daiteke gizarte-talderik garrantzitsuena zela.

Baina nekazariak ez ziren gizarte-talde bakarra (**15. irudia**). Gizarte-piramidean, goian eta behean beste gizarte-talde batzuk aurki ditzakegu: goian, funtzionarioak zeuden; eta behean, **esklaboak**. Dakigunez, legeak gauzatzen hartzen zituen esklaboak, eta saleros zitezkeen. Badirudi hasierako garaietan oso esklabo kopuru txikia zegoela Egipton, baina Inperio Berrian (II. milurtekoan), Nubiarantz eta Palestinarantz (edo Kanaanerantz) hedatzen hasi zirenean, esklabo ugari eraman zituzten Egiptora.

Egiptoko esklabotza-adibiderik aipagarriena hebrearren edo **israeldarrena** da. Ramses II.aren garaian, Inperio Berrian, oso egoera latza jasan behar izan zuten, eta Moisesek (Bibliaren arabera) Palestinara gidatu arte, esklabo bizi izan ziren Egipton.

Nekazarien gainean, talderik garrantzitsuena eta Egiptoko gizarte osoa zuzentzen zuena **funtzionarioen taldea** zen. Funtzionario hitza oso modu zabalean erabili behar dugu, eta, ideia edo kontzeptu horren barruan, eskribauak, apaizak eta faraoiaren administratzaileak sartuko ditugu. Beraz, funtzionario horiek nekazarien lana antolatzen zuten, eta Antzinako Egiptoko zibilizazioa martxan mantentzen zuten. Talde horren gailurrean faraoia zegoen; jainkotu zutenetik, faraoia guztien gainean, eta zeharo bereizita, zegoen. Irudietan eta erai-kuntzetan argi ikusten da garai hartako egiptoarrentzat faraoiak zuen garrantzia (**16. irudia**).

Esan behar da Inperio Berrian tenpluen eta **apaizen** boterea oso handia zela. Talde horren garrantzia tenpluen tamainan nabari daiteke, eta badirudi Amenofis IV.aren erlijio-erreformaren aurka presio handia egin zutela, erreforma hori gelditzera iritsi arte.

Talde **militarra** ere aipatzen da Egiptori buruzko liburu gehienetan, baina gizarte-mailan oso eragin txikikoa izan zen, Egiptok gerra gutxi egin zuelako eta babes naturalak (basamortuak eta itsasoak) oso defentsa ona eman ziolako antzinako Egiptori.

Artisauen taldeak garrantzi handiagoa zuen, Egiptoko kanpoko merkataritzarako objektu asko egiten zituelako, eta faraoiaren gorrea eta apaizen tenpluak artisauak landutako gauzez hornitzen zirelako (**17. irudia**).

Eta bukatzeko, **merkatarien** taldea aipatu behar da, baina bi merkataritza mota bereizi behar dira: alde batetik, barruko merkataritza, Nilotik egindakoa, egiptoarrek berek egiten zutena; eta, beste aldetik, kanpoko herriekin egindako merkataritza, itsasoan zehar egindakoa, feniziarrek egiten zutena.

Faraoiak eta gobernua

6

Antzinako Egiptoko sistema politikoa zeharo originala zen. Politika-arloan, Egiptoren lehen ezaugarria **batasuna** da. 1.000 km baino luzeagoa den haranaren batasuna mantendu behar zuten faraoiek, eta egiptologoen diote lehen faraoia Menes edo Narmer izan zela, lehen aldiz delta eta harana batu zituelako (**18. irudia**). Egiptoko historia sailkatzeko, esan ohi da, faraoiaren boterea handia zenean eta batasuna zegoenean, **inperioa** zela eta, aldiz, zatiketa eta gizarte-arazoak sortzen zirenean, **bitarteko garaia** zela.

Faraoiaren boterea eta irudia izugarriak ziren. Barruko ordena mantentzen zuen, kanpoko defentsa egiten zuen, Niloren uholdea kontrolatzeko lanak agindu eta bermatzen zituen, legeak kaleratu, justizia egin, eta abar, eta abar. Haren garrantzia azpimarratzeko, faraoia jainkotu egin zuten egiptoarrek, eta betiko bizitza ematen saiatu ziren, hilobi erraldoien bidez eta momifikazioaren bidez (**19. irudia**). Faraoiak, jainkoa zenez, jende arruntarengandik bereizi beharra zuen. Horregatik, ezin zuen emakume arrunt batekin ezkondu, eta, legearen arabera, arrebekin eta senideko emakumeekin besterik ez zen ezkontzen.

Egipto, oso herri handia eta luzea zenez, lurralde txikitik banaturik zegoen. Lurralde txiki bakoitza **nomu** bat zen, eta zuzentzen zuenak **nomarka** (“ubideak irekitzen dituen”) izena zuen. Jakina, faraoiak izendatzen zituen nomarka guztiak. Oso kargu garrantzitsua zen, Niloko uholdeari eta ekonomiaren antolakuntzari lotuta baitzegoen. Baina faraoiaren boterea ahultzen zenean (bitarteko garaian gertatzen zen bezala), nomarka bakoitzak bere boterea indartzen zuen, eta, ahal izanez gero, oinordetza bidezko kargua bihurtzen zuen.

Faraoiaren gortean kargurik aipagarriena **tyaty** (edo bisirra, liburu zaharretan) zen. Tyaty zen faraoiaren eskuineko eskua edo haren aginduak betetzen eta betearazten zituena. Egiptoar izen horren esanahia oso esanguratsua zen: “nagusiaren borondatea eta nagusiaren begiak eta belarriak” zen tyaty.

Politika-arloan, oso garrantzitsuak dira **kanpo-harremanak**. Egiptoarrek behin eta berriz hegoaldeko lurraldea, **Nubia** (Kush, Biblian) menderatzen saiatu ziren, eta zerga eta esklabo ugari atera zuten hegoaldeko lurralde horretatik. Egiptoarrentzat, beste lurralde garrantzitsu bat gaurko **Palestina** izan zen, kontinentetik zetozen herrien inbasioak oztopatzeko eta hango merkataritza oparoa bereganatzeko. Egiptoarrek kanpoko inbasioak ere jasan behar izan zituzten une jakin batzuetan, faraoien boterea ahultzen zenean. Adibiderik ezagunena **hiksoen inbasioa** da, K.a. XVI. mendean gertatutakoa. Hiksoek Niloko delta bereganatu zuten, eta mende oso bat iraun zuen hiksoen agintaldiak. Baina inbasiorik garrantzitsuenak geroago gertatu ziren; adibidez, **Alexandro Handiarena**, K.a. IV. mendean. Inbasio horrek kanpotik (Greziatik) etorritako jendea ezarri zuen faraoien tronuan (ptolomeotarrak; Kleopatra izan zen familia horretako azken erregina), eta azkena erromatarrena izan zen. **Erromatarrek** Egiptoko botere politiko independentea desagerrarazi zuten, eta probintzia arrunta bihurtu zuten Egipto, K.a. I. mendean (**20. irudia**).

Kultura

7

Egiptoko kultura-adierazpen guztiak erlijioarekin (eta faraoi jainkotuarekin) lotuta zeuden, eta, aldi berean, oso helburu praktikoak bete nahi zituzten. Egiptoko kultura-adierazpen aipagarriena **idazkera** da. Zergatik? Idazkerari esker eta gorde diren testuei esker, Egiptoko historiaren pertsonaiarik garrantzitsuenak ezagutu ditugulako eta testu horiek hango historiaren ezaugarriarik interesgarrienak erakutsi dizkigutelako.

Baina Egiptoko idazkera aztertzeke jakin behar da ez zela bakarra eta egiptoarrek hiru idazkera mota erabili zituztela: hieroglifikoa, hieratikoa eta demotikoa (**21. irudia**). Zibilizazio guztietan gertatu den bezala, nekazaritza eta abeltzaintza zabaltzen direnean, zenbatzeko eta idazteko sistema behar-beharrezkoa bilakatzen da, eta Egiptok ere pixkanaka berea sortu zuen. Hasieran, erabili zituzten ikurrak (ideogramak edo piktogramak) ia marrazki hutsak besterik ez ziren; geroago, ikur edo ideograma bakoitza silaba bat (sistema silabikoa) idazteko erabili zuten. Marrazki horiek **hieroglifoak** ziren. Baina ikur korapilatsu horiek egitea oso lan zaila eta geldoa zen (**22. irudia**). Idatzi behar zuten agiri kopurua handitu ahala, idazteko era arinagoa ere sortu behar izan zuten. Horretarako, idazkera **hieratikoa** sortu zen, eta, horrela, testuetan egin beharreko marrazkiak erraztu egin ziren. Idazkera mota hori papiroetan idazteko askoz erosoagoa zen. Azkenik, egiptoarrek beren zibilizazioaren azken mendeetan beste idazkera mota bat sortu zuten, ikasteko eta erabiltzeko askoz arinagoa eta errazagoa: idazkera **demotikoa**. Orain dela mende pare bat oroitari batean, Rosetta harrian, inskripzio hirukoitza aurkitu zuten arkeologoek. Inskripzioan, faraoi baten dekretua zegoen idatzita. Hala ere, harri hori ez zen oroitari arrunta, idazkera hieroglifikoz, demotikoz eta grekoz idatzita baitzegoen. Hortik abiatuta, arkeologoek egiptoarren idazkera zaharra irakurtzen eta itzultzen ikasi zuten (**23. irudia**).

Idatzitako dokumentu gehienak administrazio-testuak ziren, baina bestelako testuak ere aurki daitezke antzinako Egiptoko literaturan. Batetik, erlijio-testuak; **hilen liburua**, esaterako. Liburu horretan, Osirisen epaimahaiaren aurretik pasatu behar zuten hilentzat aholkuak idatzi zituzten, epaiketa gainditzeko eta betiko bizitza lortzeko. Bestetik, oso testu praktikoak ere aurki daitezke, besteak beste, **lanbideen satira**. Testu horretan, aitak semeari bizitza ona izateko eskribau-lanbidea aukeratu behar zuela zioen, eta gainerako lanbideen arazoak deskribatzen zituen.

Medikuntzan ere aurrerapauso nabariak egin zituzten egiptoarrek, batez ere kirurgia-arloan. Ebakuntza zailak arrakastaz egitea lortu zuten; adibidez, **trepanazioa** (burezurra irekitzea). Adituek diote kirurgian lortutako trebetasuna hilak gordetzeko, momifikatzeko ohiturarekin lotu behar dela. Edozein kasutan, kirurgian lortutako aurrerapausoa harrigarria izan zen.

Eta Nilo ibaiaren erriberetan egindako lanetatik ezagupen garrantzitsuak sortu ziren. Adibidez, **hidraulika**-eremuan aurrerapauso nabariak egin zituzten Niloren uholdea neurtzeko eta aurreikusteko (**24. irudia**). Urertzak eta soroak babesteko lanetan ere ezagupen berriak sortu ziren, **geometria**-eremuan, adibidez. Pentsatu behar da uholdeak urte batzuetan gehiegizkoak zirela eta uholde horiek soroetako mugak desagerrarazten zituztela. Kasu horietan, funtzionarioek lursailak berriro neurtu, mugak markatu, eta bakoitzari berea eman behar zioten (**25. irudia**).

Azkenik, esan behar da egiptoarrek **denbora neurtzeko sistema** originalak asmatu zituztela; aipagarrienak eguzki-erlojua, harea-erlojua edo ur-erlojua dira.

Erljioa

8

Gaurko ikuspuntutik oso zaila da Egiptoko erlijio zaharra ulertzea. Mendebaldeko kulturari —greziar filosofiaren eta kristautasunaren eranginpean— gorputza eta espiritua (edo arima) bereizten dira. Egiptoarrek, ordea, giza espiritua adierazteko (gorputza alde batera utzita) sei ideia edo konzeptu erabiltzen zituzten: Ib, **Ka, Ba**, Aj, Ren eta Sheut. Pentsamendua, indarra, izena, mamua eta itzala (beste ideien artean) bereizten zituzten egiptoarrek, giza espiritua ulertzeko. Zergatik hasi gara egiptoarren espirituari buruzko konzeptua aztertzen, oso zaila dela jakin arren? Egipto zaharreko erlijioaren konplexutasuna azpimarratu nahi dugulako.

Konplexutasun hori ulertzeko, jakin behar da Egiptoko lurralde edo **nomo** bakoitzak bere jainko zaharrak zituela eta, Egipto batu zenean, jainko horiek mantendu egin zirela. Horrela, Egipton, **politeismo** korapilatsuarekin egingo dugu topo. Eta, jainko ugari izateaz aparte, jainko batzuek besteekin bat egiten zuten, eta, denboraren poderioz, formaz aldatzen zuten. Jainko-jainkosa guztiei buruzko azalpenak luze joko duenez, **jainko eta jainkosa garrantzitsuenak** bakarrik —une nagusietan— aipatuko ditugu (**26. irudia**).

Osiris. Pizkundearen jainkoa zen. Anaia Sethek hil, zatitu eta zatiak sakabanatu zituen; gero, Isis arreba (eta, aldi berean, emaztea) zatiak bildu, eta piztu egin zuen. Gerora, Osiris eta Isis berriro elkartu ziren, eta Horus sortu zuten. Arrazoi horrengatik zen emankortasunaren jainkoa. Haren irudi ezagunena momiarena zen; momia horrek, ordea, faraoiaren itxura zuen, zeremonia-koroarekin eta bi zetroekin irudikatzen baitzuten. Osirisek, Isisekin eta Horusekin, Egiptoko erlijioa hirukote garrantzitsuena osatzen zuen.

Horretaz aparte, Osiris hildakoen munduko (Duat) jainko nagusia zen, eta hilen epaimahaiaren burua zen.

Isis. Egiptoarrek zioten “*jainkosa ama handia*”, “*jainko guztien erregina*”, “*naturaren indar ernatzailea*”, “*amatasunaren eta jaiotzaren babeslea*” zela. Isisen zeregin nagusia Osirisen zatiak biltzea eta jainko hori piztea izan zen, eta Egiptoko erlijioaren dualtasunean (hil eta piztu, gaua eta eguna, uholdea eta lehortea) zeregin garrantzitsuena zuen (Osirisekin batera).

Jainkosa tronu-itxurarekin edo eserleku-itxurarekin irudikatzen zuten beti, eta irudirik ezagunena amarena zen, eserita eta semeari bularra ematen.

Ra edo **Amon Ra.** Jainko eguzkia, zeruko indarrik ahaltsuena, Heliopoliseko (deltako hiririk ezagunena) jainko bat zen. Inperio Zaharretik Tebaseko (Egiptoko ibarreko hiririk indartsuena) Amonekin elkartu zen, eta, horrela, Egiptotik kanpo jainkorik ezagunena sortu zen. Greziarrek eta erromatarrek ere onartu zuten Amon Raren gurtza.

Amon Ra irudikatzeke bi forma erabiltzen zuten: lehena, faraoi baten itxura, koroa lumaduna buruan, ordeko bizarra eta makila eskuan; bigarrena, ahari baten burua, aharia Amonen animalia-ikurra baitzen.

Horus. Berez, **Horus** ez da izen egiptoarra, greziarra baizik. Jatorrian, izena **Hor** zen, baina jainko eta pertsonaia ezagun ugariarekin gertatu den bezala, greziar idazleei esker ezagutu dugu izena, eta greziarrek izen egiptoarrak aldatu egiten zituzten, beren hizkuntzara moldatzeko.

Belatz-burua zuen, eta Osirisen hiltzailea, Seth, menderatu zuen. Egiptoarrek zioten Horus zibilizazioaren sortzailea zela.

Seth. Aizaroen eta gaizkiaren jauna zen, eta, aldi berean, basamortua eta lehortea ziren haren eremuak. Egiptoarrek beldur zioten, Osiris —inbidiagatik— hil eta zatitu zuelako, eta

Egiptoko dualtasunaren alde kaltegarria irudikatzen zuelako. Animalia ezezagun baten burua zuen (asto basatiarena, txakurrarena, txerriarena... Adituek ez dakite zehatz zein zen, eta ez dira ados jartzen).

Thot. Jakinduriaren eta idazkeraren jainkoa zen, eta zientziak eta arteak babesten zituen. Osirisen epaimahaian, erabakia idazten zuen. Irudikatzeko ibis baten burua erabiltzen zuten, ibis asturu oneko txoria zelako (Egiptoko arrantzaleek ikusten zuten ibisak arrain txarrak —gizakiarentzat— besterik ez zituela jaten eta arrain onak bizirik uzten zituela. Hortik zeto- rren haren ospe ona).

Anubis. Hilerriko jauna zen, eta hilaren espiritua beste mundura (**Duatera**) eraman behar zuen. Jainko hori irudikatzeko, animalia gautar baten irudia erabiltzen zuten: txakalarena.

Anubisek Osirisen epaimahaiaren aurrean aurkezten zituen hilak, eta epaimahaiko balantza maneiatzen zuen.

Jainkoak tenpluetan bizi ziren, eta han apaizek zaintzen zituzten edo, hobeto esan, haien irudiak, haien eskulturak zaintzen zituzten; prozesioetan ateratzen zituzten, jendeak gurtu eta ikus zitzan. Garai jakin batzuetan (XVIII. eta XX. dinastien garaian edo K.a. X. mendearen inguru- ran), oso handia izan zen tenplu horien boterea, eta faraoi batek baino gehiagok tenpluetako apaizen mendean gobernatu zuen (**27. irudia**).

Egiptoarrek uste zuten faraoiak, jainkoa zenez, hil ondoren, **betiko bizitza** lor zezakeela. Horretarako, faraoiaren *ka* (bizi-indarra) gorde behar zuten eta ezinbestekoa zen *ka* horren sos- tengua; alegia, gorpua, nola edo hala, mantentzea. Hortik zetozen bi ondorio: bata, gorpua gor- detzeko **baltsamazioa** egitea; eta, bestea, gorpua babesteko eta hilak behar zituen gauzak iza- teko **hilobi handia** (mastaba, piramidea edo hipogeo) eraikitzea. Mendeak pasa ahala, erlijioa aldatu eta ireki egin zen, eta nobleek eta jende arruntak ere betiko bizitza lortzeko aukera izan zuten. Beraz, haiek ere, Osirisen erreinura joan baino lehen, jainko horren **epaiketa** gainditu behar zuten.

Baltsamazioa nola egiten zuten jakiteko, Herodotok kontatzen duenari jarraituko diogu. Hila tenplura (baltsamatzeko etxera) eraman ondoren, erraiak ateratzea zen lehen pausoa; kako luze bat erabiliz, burmuina ateratzen zioten, eta gero, birrikak, hesteak eta gibela enborretik ate- ratzeko, Nubiako harrizko laban zorrotzaz (zeremonia-labanaz) ebaketa egiten zioten. Erraiak atera ondoren, usain oneko belarrez, mirraz eta zerrautsez betetzen zuten enborra. Hurrengo pausoa gorpua lehortzea izaten zen; horretarako, natron (gatz berezia) bainu baten barruan, hirurogeita hamar egun uzten zuten. Horrela, gorpua usteltzea saihesten zuten, eta azken pau- soa liho-zerrendaz gorpua biltzea izaten zen. Pauso guztiak bete ondoren geratzen zen farde- lari, momia deitzen zitzaion. Lan horiek guztiak apaiz espezalizatuek egin behar zituzten, eta apaiz nagusiak Anubisez mozarrotuta egin behar zuen lan zeremonial hori (garai hartako irudi batzuen arabera) (**28. irudia**). Prozesu hori guztia bukatu ondoren, momia hilobira eramaten zuten: faraoia bazen, mastaba edo piramide batera; garrantzi gutxiko momia bazen, beste hilo- bi merkeago batera (hipogeo edo leize-zulo batera).

Baina hilak betiko bizitza izateko, Osirisen epaiketa gainditu behar zuen (**29. irudia**). Epaiketa horretan, Anubisek aurkezten zuen hila Osirisen aurrean; han, balantzan, hilaren bihotza pisatzen zuten haren ekintzak onak edo gaitztoak izan ziren jakiteko. Onak baziren, Osirisengana joaten zen hila; bestela, munstro izugarri batek (Imris edo Immit) irensten zuen. Eta kasu guztietan, Thot jainko jakitunak idazten zuen epaia, Osirisek bere eserlekitik dena ikusten zuen bitartean.

Azkenik eta laburbilduz, esan daiteke Egipto zaharraren historian erljioak garrantzi handia zuela, eta egiptoarren bizitza-eremu guztietan sartuta zegoela. Garai hartako herri guztietan (Mesopotamian edo Grezian, adibidez), erljioaren zeregina oso nabaria bazen ere, kanpotarrek, Egipto bisitatzen zutenean, beti azpimarratzen zuten egiptoarren jainkozaletasuna edo erljiositatea oso handia zela (gogora dezagun goian egin dugun Herodotoren aipua).

Salbuespen monoteista. Atal honen hasieran aipatu dugu Egiptoko erljioa politeista zela. Inperio Berriaren garaian (K.a. XIV. mendean), ordea, XVIII. dinastiako faraoi batek, Amenofis IV.ak, erljio mota berri bat ipini zuen martxan. Erljio-aldaketa hori benetako iraultza izan zen; izan ere, egiptoarrek beren jainkoen eta jainkosen gurtza egitea benetan maite bazuten ere, faraoiak gurtza guztiak (bat izan ezik) debekatu zituen, eta jainko berri bat inposatu zien: Aton. Aton eguzkiaren irudikapen bat zen, eguzki-diskoa. Faraoiaren izena ere aldatu zuen; Amenofis izena alde batera utzita, Akenaton izena hartu zuen, eta, haren ohorez, erresumako hiriburu berria eraikiarazi zuen (Ajetaton edo Tell el Amarna).

Baina beste jainkoen apaizek ez zuten onartzen halako aldaketa sakonik, eta, faraoia hil ondoren, beste jainkoen gurtza berreskuratu zuten. Hori faraoi berriaren izen-aldaketak ongi erakusten du: Aken**aton**en semeak (Tutank**aton**) aitaren postua hartu zuenean, Tutank**amon** izena erabili zuen.

Artea

9

Antzinako Egipton ia ez dago arte zibilik. Lan guztiak (gorde direnak, behintzat) hilobiekin eta tenpluekin lotuta zeuden. Egile batzuek diote etxe-gurtzak oso garrantzitsuak izan zirela, baina aztarnarik ikusgarrienak lan ofizialak edo faraoiekin lotuta zeudenak ziren, eta horietan ipiniko dugu arreta Egiptoko artea aztertzean.

Egiptoko antzinako artea ikasten dugunean, artelanik ikusgarrienak **piramideak** dira. Zergatik? Lehenik eta behin, tamainagatik edo neurriengatik; eta gero, eraikitzeke zailtasunengatik. Tamainaz hitz egingo dugu: Keopsen edo Kufuren piramidea neurtzen baldin badugu, Donostiako Urgull mendia baino askoz altuagoa dela ikusiko dugu (edo Gasteizen kokatzen bagara, Santa Maria kalearen —muinoa— eta Florida parkearen arteko desnibela baino altuagoa da) (**30. irudia**). Eraiki zutenean, 147 metrokoa zen piramide hori, eta, hura egiteko, harrizko blokeak ekarri zituzten oso urrutitik. Bloke arruntak, gehienak, bi tona baino gehiagokoak ziren, eta bloke berezi batzuek hirurogei tona baino gehiago pisatzen zuten.

Piramideen eraikuntza, hala ere, tamaina baino askoz harrigarriagoa da, betiere Egiptoko antzinako eraikitzeke teknikei begiratzen baldin badiegu. Harriak mozteko, zurezko ziriak erabiltzen zituzten. Egindako zirrikitu batean sartu ondoren, ziria bustitzen zuten, eta ziriak lehertzen zuen harria; gero, harginek landu behar zuten blokea, piramideraino eramane baino lehen. Han, piramidearen gunean, narren bidez (leren bidez) igotzen zituzten harriak, piramidearen inguruan eraikitako arrapaletatik. Antzinako Egiptoko teknikak gaurko teknikekin alderatzen baldin baditugu, are eta harrigarriagoak dira egiptoarrek egindako eraikuntzak (**31. irudia**).

Baina, **zertarako** edo zergatik eraiki zituzten monumentu erraldoi horiek? Faraoiaren gorpua gorde eta babestu nahi zutelako. Gogora dezagun egiptoarrek faraoia jainkotu zutela, haien gizarte-sistema osoko zentroa baitzen. Faraoiaren garrantzia eta haren jainkotasuna zen arrazoia, egiptoarrek beren gizarte osoa martxan mantentzeko; izan ere, egiptoarrek irmoki uste zuten faraoiak beste bizitzan bere izanari jarraitu behar ziola. Uste horregatik, nekazariak, uzta bildu ondoren, faraoiaren eraikuntzetara joaten ziren, eta Egiptoko nekazariak, jainkozaletasunagatik, beste zibilizazioetan esklaboek betetzen zituzten lanak egiten zituzten. Aditu batzuek ikuspuntu hori zehazten dute, eta azpimarratzen dute funtzionarioek behartuta betetzen zituztela faraoien lanak.

Piramidearen ondoan, beste piramide eta eraikuntza txikiagoak zeuden (faraoiaren senideak gordetzeko), eta etorbide zeremonial batetik Niloko tenplura (ertzean zegoena) joan zitezkeen (**32. irudia**). Horrela, piramide nagusiaren inguruan erlijioegune zabala sortzen zen.

Esan dugunez, piramideak dira eraikuntzarik aipagarrienak; baina, piramideak sortu baino lehen, egiptoarrek beste eraikuntza mota batzuk ere egin zituzten. Esaterako, Keopsen piramide (famatuena) K.a. 2550. urtean eraiki zuten; piramide handienak egin baino lehen, ordea, egiptoarrek mende ugari pasa zuten faraoientzako lanak egiten. Piramideen lehen aurrekaria mastaba izan zen (**33. irudia**). Hurrengo pausoa izan zen lehen mastabaren gainean, beste bat ipintzea; eta gero, beste bat, eta beste bat. Hala, piramide mailakatua lortu arte (Saqqaran ikus dezakeguna bezalakoa); azken pausoa mailak edo desberdintasunak betetzea edo berdintzea izan zen, ezagutzen dugun piramide famatua lortu arte.

Horiek dira faraoiak (eta geroago, haien senideak eta goi-funtzionarioak) lurperatzeko hilotzirik ezagunenak, baina, garai batzuetan, basamortuan egindako leize-zuloetan edo hipogeoetan (hipogeo = lurpekoa) ere lurperatzen zuten faraoiaren gorpua (eta baita besteak ere). Ezagunenak Tebaseko inguruetan ikus daitezke; “errege-ibarra” izena du tokiak (**34. irudia**).

Dudarik gabe, Antzinako Egiptoko eraikuntzarik garrantzitsuenak hilobiak dira; hala ere, hilobien ondoan **tenpluak** aipatu behar ditugu, batez ere Inperio Berrikoak, benetako eraikuntza erraldoiak eta erlijioaren boterearen frogak direlako. Tenpluen garrantzia ulertzeko, gogoratu behar dugu tenpluetan jainko eta jainkosak gordetzen zituztela. Jainko eta jainkosa bakoitzak bere tenpluak zituen, eta, han, jainkoaren apaizek haren gurtza mantentzen zuten **(35. irudia)**.

Tenpluen egitura ez zen beti berbera, baina honako hau zen egitura arruntena. Tenpluaren aurrean, **etorbidea (dromos)** zegoen, bi alboetan eskulturez beteta. Gero, tenplura sartzeko, **pilonoak** zeuden; pilonoak atea inguratzen zuten dorre (trapezio-formakoak) handiak ziren. Eta pilono bakoitzaren aurrean, normala zen **obelisko** bat ipintzea. Pilonoak zeharkatu ondoren, **hipetra-gelara** iristen zen. Hipetra-gela patio edo barla irekia zen, zutabez inguratuta. Aurrera joz gero, **hipostila-gela** zegoen. Hipostila-gela ere zutabez beteta zegoen, baina ez zen gela irekia, itxia baizik (patiorik gabe), eta gela horretara argi gutxi sartzen zen. Amaieran, **santutegira** heltzen zen. Han, ia ez zegoen argirik, gela baxuena eta itxiena zelako. Gela horretan oso ondo gordeta zegoen jainkoaren irudia, eta apaizak bakarrik sartzen ziren jainkoa zaintzera. Aurreko gelan (hipostilan), faraoia eta apaizak sar zitezkeen. Hipetra-gelan, ordea, apaizen atzetik, funtzionarioak sar zitezkeen, eta jende arruntak kanpoan geratu behar zuen **(36. irudia)**.

Arkitektura-lanen atala bukatzeko, lehenik esan behar da Antzinako Egiptoko estiloa lerro bertikalek eta horizontalek menderatzen dutela edo, beste era batean esanda, estilo **arkitrabatua** dela eta, estilo horretan, zutabeak eta lerro bertikalak nonahi ikus daitezkeela. Bigarren lekuan, **erraldotasuna** edo monumentalitatea aipatu behar da, faraoien eta jainkoen handitasuna azpimarratzeko.

Baina hilobiak eta tenpluak ez zeuden hutsik. Tenpluetan, jainkoen eta jainkosen irudiak zeuden, eta hilobietan, hildakoen irudiak (jainkoek hildakoa ezagut zezaten, hildakoaren **Kak** sostengua eduki zezan eta betiko bizitzara pasa zedin) eta hilak behar lituzkeen objektuak (bitxiak, kosmetika-tresnak, ispiluak, jostailuak, eta abar). Objektu horien guztien artean nabarierik **eskulturak** ziren: faraoien eskulturak, funtzionarioen eskulturak eta jende arruntarenak.

Hala ere, eskultura guztiak ez ziren berdinak. Diferentzia asko aurki badaitezke ere, guk bi multzotan sailkatuko ditugu. Lehen eskultura multzoa faraoien irudiena da. Teknikoki, oso ondo landuta zeuden; hala ere, multzo horretan **naturaltasuna** oso **mugatuta** zegoen. Batez ere, faraoiaren handitasuna eta duintasuna azpimarratzen ziren **frontalitatearen** bidez (ardatz-simetria errespetatuz) eta **hieratismoaren** edo zurruntasunaren bidez **(37. irudia)**. Eskultura-arloan (eta arte plastiko guztietan), beste ezaugarri garrantzitsu bat **hierarkia** izan zen, hau da, pertsonaia bakoitzak bere garrantziaren araberako tamaina zeukan: faraoia handiena zen; emaztea, txikiagoa; eta semea edo esklaboak, besteak baino askoz txikiagoak.

Bigarren multzoa jende arruntarena da; adibidez, neskato esklabo baten eskultura edo herri txiki bateko alkate batena edo eskribau batena. Kasu horietan erabiltzen diren materialak faraoien eskulturenak baino askoz apalagoak dira (harriaren ordeaz, egurra edo lohia nahiago zuten), eta naturaltasun handiagokoak ziren, mugimenduetan, anatomian eta itxuran (edo espresioan) **(38. irudia)**.

Eskultura-munduan egin dugun bereizketa, pinturaren eta erliebearen arloan ere egin dezakegu; baina irudiak egiteko ezaugarriak desberdinak eta oso bereziak ziren. Zergatik? Errealitatea irudikatzeko, antzinako egiptoarrek oso **arau zorrotzei** jarraitu behar zitelako. Hona hemen Elhuyar entziklopediak egindako arau horien laburpena: “Errealitatea bi dimentsiotan

irudikatu ahal izateko, ondorengo mila urteetan iraungo duen egiune sail bat ezartzen da: aurpegia aldamenka, gerritik beherakoa erdizka, bizkarra eta begia aurrez; [...] perspektiba eza, gauzakiaren itzulingurua baliatzea, ardatz simetriko baten arabeko antolakuntza, kontakizuna maila desberdinetan antolatzea, irudiak lerroan jartzea, pertsonaiaren tamaina garrantziaren araberakoa izatea” (**39. irudia**). Pertsonaien **proporzioak** ere arau aldaezinen menpe zeuden, eta gauza berbera esan daiteke animaliak edo objektuak irudikatu nahi zituztenean. Hala eta guztiz ere, faraoien eta jainkoen irudikapenetik aldentzen zirenean, naturaltasun handia lortzen zuten Egiptoko artisauek, eta graziaz betetako eszenak egin zitzaizketen.

Bukatzeko, aipatu behar da objektu txikien arloa (egunerokoak) eta egiptoarrek lortu zuten trebezia, bitxiak eta metal preziatuak lantzean, apaingarriak prestatzean edo jostailuak egitean (**40. irudia**). Arrazoi horregatik, artisauek horiek Egiptotik kanpo oso preziatuak ziren, eta kanpoko merkataritzaren oinarria ziren.

Ondarea eta eragina

10

Antzinako Egiptok aztarna ugari utzi zuen faraoien garaia pasa ondoren. Esan behar da erromatarrek Egiptotik hainbat jainko hartu zutela, izena aldatu ondoren edo betiko Erromako edo Greziako jainko batekin batu ondoren (Horus, adibidez, Apolorekin batu zen). Egiptotik ekarritako artelanak kopiatu egin zituzten, baina Egiptoko benetako pentsaera erlijiosoak ulertu gabe. Aztarna horiek ia desagertu egin ziren Erdi Aroan, kristautasunak indar handia zue-nean, Elizak gurtza paganoak desagerrarazi nahi zituelako.

Baina egia da gaur egun Egiptoko zibilizazioari buruzko jakin-mina oso handia dela eta jakin-min hori nabari daitekeela gizartean (hasieran aipatu ditugun filmeak, bideo-jokoak, komikiak) (**41. irudia**) eta baita kultura-arlo serioenetan ere. Pentsa dezagun mundu osoko museoetan faraoien Egiptoko bildumak oso zabalak direla eta museo horietan Egipton baino artelan gehiago eta baliotsuagoak dituztela.

Gaurko jakin-mina ez da berria, eta Errenazimentutik (XVI. mendetik) Antzinako Egiptoko artearen lanak berreskuratzeko saiakerak izan ziren, baina antzinako egiptoarren pentsamen-dua eta haien artelanen esanahia ondo ulertu gabe. Hala ere, 1798an Napoleon Bonapartek Egipto bereganatzeko espedizioa antolatu zuen (**42. irudia**). Harekin ikerlari asko joan ziren, eta egiptoarren kontaketak, marrazkiak eta hainbat artelan ekarri zituzten Europara. Egipto ezagutzeko gura piztu zuen horrek guztiak, eta, Rosetta harria aurkitu eta hieroglifoak itzuli zituztenetik, Antzinako Egiptori buruzko ezagutza zeharo zabaldu zen (**43. irudia**).

*Laguntzak eta
kontsultak*

11

Wikipedian eta beste webgune batzuetan aurkitutako informazioa (www.egipto.com, adibidez).

Antzinako Egipton barrena. Gaiak Argitaletxea, Donostia, 1992.

Asterix eta Kleopatra. Mas-Ivars editoreak, 1974.

Microsoften “*Civilizaciones egipcias*”. CDROM zaharra da, baina oso erabilgarria.

Hainbat film lagungarriak dira Egiptoko antzinako zibilizazioa ulertzeko. Adibiderik aipagarriena “*Faraoien lurra*”, Howard Hawksen filmea. Film horretan 22. minututik 45. minutura piramideak eraikitzekeo baliabideak, tresnak eta lan-teknikak ondo adierazten dira.



1. Tutankamonen hil-mozorroa

Izena	Hieroglifoak	Ahoskera eta itzulpena
Horus		K3 n3j mr m3T (Kana) Merimaa) Zeen indartsua, justizia maite duena
Netjy		nk knt uT3sot (Mekemet uafasot) Kemeten defendatzailea, kanpotarren garailea
Her-Nub		usr mpul '3 n3tu (Userempul aanejeku) Indartsua eta iraunkorra, handia garaipenean
Nesut-Bity		usr m3T n' s3p n' (Usermaatra Setepenna) Rak aukeratu duena
Sa-Ra		r' ms su mi imo (Ramsés Meriamón) Rak sortutakoa, Amonek maite duena


2. Hieroglifoak, ia marrazki hutsak. Lehen idazkera mota




3. Egipto, Nilo ibaiaren ibarra eta delta. Alboko elementu fisikoak




4. Anubisen irudia, faraoiaren gorputza baltsamatzen



5. Ardatz kronologikoa. Egiptoko garai historikoak




6. Nilo ibaiaren ibilbide luzea. Ibarra eta delta



7. Ardatz kronologikoa. Faraoi ezagunenak



8. Afrikako klima-mapa. Basamortuaren garrantzia




9. Nilo ibaiaren ibarra. Basamortuaren eta haranaren arteko aldea



10. Ramses V.aren momia, K.a. XII. mendean



11. Nekazariak lurra goldatzen




12. Nilo ibaiaren ibarraren eskema



13. Egiptoko merkataritza



14. Nekazariak garia jotzen



15. Egiptoko giza piramidea



16. Tutmes (Tutmosis) III.aren irudia



17. Artisauak lanean




18. Narmerren (Nemes) paleta. Faraoiaren boterearen erakusle, etsaia menderatzen duenean



19. Amenhotep I.aren momia eta hilkutxa. Antropomorfoa edo giza itxurakoa



20. Asiako jendea, egiptoarren arabera




21. Idazkera hieroglifikoaren adibide bat



22. Hieroglifoak eta irudiak, zergen kobrantza adierazteko




23. Rosetta harria



24. Yussef ubidea Nilo ibaiaren ibarra eta Faium lakua lotzen



25. Nilo ibaiaren uholdea neurtzeko nilometroa




26. Egiptoko jainkoen irudiak




27. Egiptoko tenplu baten irudia



28. Baltamazio-lanak




29. Hunefer papiroa. Osirisen epaiketa




30. Keops piramidearen eta Urgull mendiaren arteko konparazioa




31. Gizehko piramideak




32. Saqqarako piramide mailakatua eta gune erlijiosoa



33. Mastaba baten eskema



34. Hipogeo baten zeharkako ebaketa



35. Tenpluaren eskema



36. Tenplu bateko hipostila-gelako zehaztasuna



37. Mikerinos faraoia eta emaztea, eta Athor jainkosa



38. Neska esklaboa



39. Nebamuneko pintura bat



40. Egiptoko artisautza (kakalardoa, jostailua eta eraztuna)

Egipto Antzinako zibilizazioaren erakartzeko ahalmena

Egiptoko Antzinako zibilizazioaren erakartzeko ahalmena ez da berria. XVIII. mendean ere, Antzinako Egiptoren oihartzunak aurki daitezke; adibidez, argumentua kokatuta dago Mozarten *txirula miragarria* opera famatuan, Egiptoko jainko zaharren

Nr. 18. Chor

O Isis und Osiris, welche Wonne!

Die düstere Nacht verscheucht derGlanz der Sonne

Bald fühlt der edle Jüngling neues Leben,

Bald ist er unsern Dienste ganz ergeben.

Sein Geist ist kühn, sein Herz ist rein,

Bald wird er unser würdig sein.

18. Koru

Isis, Osiris, hau gozamena!

Eguzkiaren distirak uxaten du gau goibela.

Aurki, gazte nobleak bizitza berria ohartuko du,

eta gure zerbitzura etorriko da.

Bihotz aratzekoa da, eta haren espiritua ausarta da.

Aurki, fidagarria izango zaigu.

Baina *Txirula miragarria*, ez da, musika arloan, Antzinako Egipto aipatzen duen lan bakarra. Espaniako zarzuela famatua, *la corte de faraón*, Antzinako Egipton kokatuta dago, eta argudioak txantxetan kontatzen du Josefén istorioa.



41. Anubis, komiki batean



42. Napoleon, esfingearen aurrean. XIX. mendeko pintura

Mesopotamia

Jose Irizar

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	75
2.	Kokapena	79
3.	Bilakaera politikoa	83
4.	Ekonomia	87
5.	Gizartea	91
6.	Gobernua.....	95
7.	Kultura	99
8.	Erljioa.....	103
9.	Artea.....	107
10.	Ondarea	111
11.	Laguntzak.....	115

Sarrera

1

“Historia Sumerren hasten da”; horrela zioen Samuel Noah Kramerrek bere liburu famatuan, 1956an. Hori egia da, zibilizaziorik zaharrena Mesopotamiakoa baitzen; han, Egipton edo Txinan baino lehenago sortu zen zibilizazioa (**1. irudia**).^{*} Egia da, halaber, gaurko mundu osoan, Mesopotamian sortutako hainbat ideia eta teknika erabiltzen direla. Adibidez, Mesopotamian egindako astronomia-azterketekin batera, astrologia edo zodiakoa sortu zen; gaur egun egunkari guztietan ikus daitekeen zodiakoa da hori. Horrez gain, denbora zenbatzeko erabiltzen den sistema hirurogeitarra Mesopotamiako zibilizaziotik dator. Sistema horren bidez, orduak, minutuak eta segundoak kontatzen ditugu (60 zenbakia oinarritzat hartuz); hala ere, beste gauzak (distantziak, janariak, edariak...) zenbatzeko sistemarekin alde handia dago, kopuru horiek neurtzeko oinarria 10 zenbakia baita.

Horrez gain, adituek azpimarratzen dute Mesopotamian sortu zutela lehen idazkera mota (kuneiformea) eta, Mesopotamia-inguruetan, guk erabiltzen dugun idazkera-sistemaren arbasoa (fonetikoa). Gainera, badirudi Mesopotamian gorpila ere asmatu zutela.

Horretan guztian pentsatzen badugu, arazorik gabe onartuko dugu Mesopotamiaren garrantzia historian eta goian aipatutako Kramerren hausnarketa (**2. irudia**).

* Irudiak 118. orrialdean eta ondorengoetan ikus daitezke.

Kokapena

2

Kokapen geografikoa. Herodoto greziar famatuak Babiloniako lurraldea deskribatu zuenean esan zuen ibaien arteko lurraldea (mesos = artean, potamos = ibaia) zela. Ibai horiek Tigris eta Eufrates dira, eta gaurko Iraken dute ibilbide gehiena, Turkian (Anatoliako mendietan) jaio arren. Bi ibai horiek ibilbidearen amaieran elkartzen dira, Persiako golkoan ibilbidea amaitu baino lehen, eta, amaiera horretan, ibaiek lurralde zingiratsu zabala sortzen dute. Lurralde zaila, baina emankorra, gizakiak ura kontrolpean mantentzen duenean. Aldi berean, bi ibai horiek oso pasabide zabala irekitzen dute Indiako ozeanotik (ekialdetik), Mediterraneo itsasora (mendebaldera), iparraldeko Zagros mendikatearen eta Arabiako basamortuaren artean. Mesopotamiako lehen ezaugarri fisikoa hau da: lurralde **irekia** da, eta, azken sei milurtekoetan, giza talde ugari zeharkatu, bereganatu, suntsitu, eta berregin du lurraldea (**3. irudia**).

Kokapen geografiko ona izateko, bigarren ezaugarri fisikoa klimari dagokiona da. Eta, dudarik gabe, Mesopotamiako klima **basamortukoa** da (**4. irudia**). Horrek esan nahi du euri kopurua txikia dela; Bagdaden, lurraldeko zentroan, urtero batez bestekoa 139 milimetrokoa da (edo 139 litro metro karratukoa). Oso ur kopuru txikia izateaz gain, udako hilabeteetan ez dago urik, eta beroa izugarria da. Esan daiteke uztailean, Bagdadeko batez bestekoa Sevillakoa baino 7 gradu gehiago dela edo Donostiakoa baino 14 gradu gehiagokoa. Baldintza horietan, nekazaritza eta abeltzaintza ia ezinezkoak dira. Basamortuan, artalde eskas batzuek besterik ez zuten bizi ahal izaten.

Baina ibaien ura kontrolatzen denean, nekazaritza oparora sortzeko baldintzak bikainak dira, eta, beste lurraldeetan gertatu zen bezala (Txinan edo Egipton), zibilizazio distiratsua sortu zen, gizakiak naturaren baldintzetara moldatzen eta haietaz aprobetxatzen zirenean (IV. milurtekoetik aurrera).

Kokapen kronologikoa. Zibilizazio bat kokatu nahi dugunean, haren garaian ere kokatu behar dugu. Mesopotamiaz hitz egiten dutenean, adituek diote munduko zibilizaziorik **zaharrena** dela; Txinakoa, Egiptokoa edo besteak baino zaharragoa. Zehazki, lehen hiriak **laugarren** milurtekoan kokatzen dituzte; Uruk hiria edo Uruken aroa (edo aldia) izan zen. Historialariek diote lehen idazteko sistema finkoa (kuneiformea), gorpila eta kalkulu matematikoa garatu zituztela Uruken, eta asmakuntza horiek (idazkera, batez ere) historiaren hasiera mugatzen dutela. Mesopotamiako antzinatearen historiak islama agertu arte (K.o. VII. mendea) iraun zuen, islamak lurraldearen izaera aldatu eta zeharo berritu baitzuen (**5. irudia**).

Bilakaera politikoa

3

Hala eta guztiz ere, epe luze horretan ez dago jarraipenik zibilizazioaren ikuspuntutik, herri edo giza multzo desberdinek beren antolakuntza eta ezaugarri edo berezitasun kulturalak ekarri baitzituzten. Horrela, laugarren milurtekoan **Uruken** garaia izan zen. Geroago, Sumerren (Tigriseko eta Eufrateseko behe-haranean) hainbat hiri independente (Lagash, Kish, Uma, Ur eta Eridu) sortu ziren. Garai hartan, oso arruntak ziren hirien arteko borrokak, baina bakar batek besteak menderatu gabe eta lurraldeko erresuma zabala sortu gabe. Laugarren eta hirugarren milurteko horietan, hiri bakoitzak bere inguruko eskualdea besterik ez zuen kontrolatzen. Badirudi hiri horiek ekialdeko herri batek sortu zituela, **sumertar herriak (6. irudia)**.

Hurrengo pausoa hirugarren milurtekoaren amaieran etorri zen: **lurraldeko inperioak** _baina Mesopotamia osoa menderatu gabe_ Sargonen **Akadiar** Inperioa (K.a. 2350), Gudearen **Lagash**eko Erresuma (K.a. 2144), **Babiloniako** Hamurabiren garaia (K.a. 1792). Benetako inperioak, Mesopotamia osoa menderatu zutenak, geroago agertu ziren. Haien artean aipa daitezke **asiriarrak** (K.a. VIII. mendean), **persiarrak** edo **mediarrak** (K.a. 500. urtearen inguruan), eta Alexandro Handiaren **greziarrak** (K.a. 300. urtearen inguruan). Geroago, hango dinastia desberdinek lurralde osoa menderatu zuten, eta baita inguruak ere, Arabiatik islama etorri zen arte.

Ekonomia

4

Ikusi dugunez, hainbat herrik egin zuten Mesopotamiako historia; hala ere, zibilizazioaren aldeak edo fazetak aztertzerakoan, herri guztien lanak bateratuko ditugu, eta utzitako aztarnak ikasiz landuko ditugu gaiaren atalak (ekonomia, kultura...).

Ekonomiaz hitz egiten dugunean, esan behar da Mesopotamiako inguru menditsuetako hainbat puntutan herrixka neolitikoak agertu zirela (Halaf, Jeriko...); toki horietan, nekazaritza ipini zuten martxan, jendea sedentario bihurtu zen, eta ekoizpenaren zati bat ez zuten garaian kontsumitzen. Zati hori pilatu edo gorde egiten zuten. Zati hori edo soberakina oso garrantzitsua da ekonomia-arloan, nekazaritzaz edo abeltzaintzaz aparteko lanbideak agertzea bultzatu baitzuen. Janari kopurua nahikoa izan zenean, artisautza sortu zen, eta baita merkataritza ere. Eta soberakin handiak gorde, zenbatu, utzi eta kobratu behar izan zituztenean, administratzaileak ere agertu ziren. Gainera, soberakinak lapurrengandik babestu behar ziren, eta, horretarako, soldaduak ere nahitaezkoak izan ziren (**7. irudia**).

Baina benetako aldaketa lur zingiratsuak hazten hasi zirenean etorri zen. Horretarako, lur-sailak lehortu behar zituzten, ur kopururen bat gorde behar zuten, eta aldizkako uholdeen aurreko babesak lortu behar zuten. Ura kontrolatzearen garrantzia uler dadin Bibliako Noeren kondairan pentsa dezakegu, uholde handi batek utzitako oroitzapena baita. Ura kontrolatu eta lur zingiratsuak landu ondoren, soberakin kopurua izugarri handitu zen, eta handitze horrek ondorio ugari ekarri zuen ekonomia-arloan, gizartean eta zibilizazioaren maila guztietan (**8. irudia**).

Ikusi dugunez, nekazaritza sortu ondoren, ekonomia ugartu eta zaildu egin zen, eta ekonomiaren inguruan **teknika berriak** agertu ziren. Adibidez, **metalak** lantzeko teknikak asmatu ziren, eta, kobrea eta eztainua (edo artsenikoa) urtuz, **brontzea** (K.a. 3000. urtean) lortu zuten; horrela, tresna eta arma hobeak izan zituzten. Bi milurteko geroago, beste aurrerapauso garrantzitsu bat eman zuten lurraldeko iparraldean (Anatolian edo Kaukason), eta **burdina** (K.a. 1300. urtean) sortu zuten, brontzea eta beste material guztiak baino askoz gogorragoa. Bai objektuak egiteko, baita armak fabrikatzeko ere, burdinak aldaketa izugarria ekarri zuen, eta Ekialde Hurbilean benetako iraultza gertatu zen, hango herriak burdinaren agerpenari egokitu zitzaizkion arte. Adibidez, borrokatzen zirenean, brontzezko armak burdinazkoak baino askoz lehenago puskatzen ziren, eta burdina zeramanak abantaila handia zeukan (**9. irudia**).

Brontzea egiteko ezinbestekoa da eztainua, baina Mesopotamian ez zegoen eztainurik, eta hura ekartzeko merkatariek oso urrun joan behar zuten, Britainia Handitik (han eztainu-hobi ugari baitzeuden) Ekialde Hurbilera merkataritza-bide berriak ireki behar izan zituzten. **Urruneko merkataritza** hori feniziarrek egiten zuten, eta Ekialde Hurbileko kultura eta berrikuntzak mendebaldera eramane zituzten (jakin behar da gaurko Tunezen ondoan hiri feniziar bat zegoela [Kartago] eta Espainiako Cádiz hiria feniziarrek berek sortu zutela, orain dela ia 3.000 urte) (**10. irudia**).

Beste aurrerapauso garrantzitsu bat gorpila izan zen. Badirudi teknika hori zeramika-arloan (tornua egiteko) sortu zela, baina berehala erabili zuten garraio-eremuan. Horrela, mugitzen ziren zamak handitu egin ziren, eta, merkataritza-arloan, gorpila oso erabilgarria izan zen. Borrokatzeko teknikak ere zeharo aldatu ziren gorpila eta gerra-gurdia sortu ondoren (**11. irudia**).

Aipatu ditugun aldaketekin batera, beste berrikuntza batzuk sortu ziren. Berrikuntza horiek oso garrantzitsuak izan ziren ekonomia-arloan. Adibidez, ondasun berriak zenbatzeko eta antolatzeko, Mesopotamiako jendeak matematika garatu zuen, eta zenbatze-sistema propioa asmatu: hirurogeitar sistema. Horrez gain, gordetzen zituzten gauzak izendatzeko eta antolatzeko

Gizartea

5

sistema ere behar izan zuten: idazkera izan zen sistema hori. Baina asmakuntza horiek geroa-go, kultura atalean, aztertuko ditugu.

Ekonomia atalean, nekazaritzan gertatutako aldaketen garrantzia aipatu dugu, eta baita soberakinak ekarri zituen berrikuntzak ere. Nekazaritza eta hiria sortu ondoren, gizartearen barruko antolaketa edo gizarte-egitura zaildu egin zen, eta talde kopurua eta talde horien arteko diferentziak ere handitu egin ziren. Gizarte-egitura hori ulertzeko, garai hartako agiri baten laguntza izango dugu: Hamurabiren kodea. K.a. 1800. urtearen inguruan bizi izan zen Hamurabi erregea; Babiloniako erregea izan zen. Lan garrantzitsu bat egin zuen errege horrek, erabilitako legeak eta tradizioak laburtu eta harriz egindako zutabeen kaleratu baitzituen: Hamurabiren kodea da lege-kode hori, eta han agertzen den informazioaren arabera, honako hauek ziren garai hartako giza taldeak (**12. irudia**):

Gizarte-piramidearen gailurrean, goi-funtzionarioak, apaizak, lur-jabe handiak eta merkatarri **aberatsenak** zeuden. Legeak babesten zuen gizarte-talde boteretsu hori (*awilum*), eta horien kontrako delituak gogor zigortzen zituen.

Beherago, **herritar arruntak** edo ertainak zeuden (*mushkenum*). Horiek libreak ziren, normalean nekazariak eta artisauak, baina horien aurkako delituak awilumen (goi-taldekoak) kontrako delituak baino arinago zigortzen ziren.

Herritar libre batek bere eskubideak gal zitzakeen (adibidez, zorrak ez ordaintzeagatik); orduan, **esklabo** (*wardum*) bihurtzen zen, eta beste herritar baten agindupean bizi behar izaten zuen, eta harentzat lan egin behar zuen, zorrak kitatu arte. Baina egoera horretan ere, eskubide batzuk gordetzen zituen esklaboak, eta askatasuna berreskura zezakeen.

Mesopotamian, gerra ugari gertatzen ziren; ondorioz, beste gizarte-talde bat sortu zen. Gerretan hartutako **gatibuak** eta menderatutako herri batzuk Babiloniara (edo beste toki batzuetara) eramantzen zituzten, han bizitzeko eta, inolako eskubiderik izan gabe, lan egiteko. Biblian kontatzen da nola juduek horrelako egoera bizi behar izan zuten, kanpoko agintea onartzen ez zutelako eta behin eta berriz matxinatzen zirelako (**13. irudia**).

Gobernua

6

Hasieran esan dugu herri ugari agertu zirela Mesopotamiako historian zehar. Hau da Mesopotamiako lehen ezaugarri politikoa: aldaketa edo iraupenik eza; **aldaketa**, akadiarrek sumertarrak menderatzen dituztenean, edo Babiloniak Akad irabazi zuenean, edo asiriarrek lurralde osoa bereganatu zutenean, edo, berriro, Babiloniatik lurralde osoko boterea sortu zenean, edo...

Bigarren ezaugarria herri berrien agerpena da. Kanpotik etorritako herri **nomadak** ziren horiek, bai Arabiako basamortutik ateratako semitak, baita ekialdeko mendietatik etorritako persiarrak edo iparraldean agertu ziren hititak. Talde nomadek _normalean, oso talde pobreak eta erdi basatiak_ ezagutzen zuten ibaien arteko hirien oparotasuna, eta haiek bereganatzeko tentazioa zuten beti, eta ahultasun-uneetan edo garai korapilatsuetan saiatu egiten ziren. Pentsa dezagun ezaugarri hori beste zibilizazioetan ere aurki dezakegula eta horrelako ideiek germaniar barbaroak Erromatar Inperioa hartzera bultzatzen zituztela (**14. irudia**).

Hirugarren ezaugarri batekin egingo dugu topo, Mesopotamiako historia luzearen begirada orokorra egiten baldin badugu. Unitate politikoak **handitzen** doazela ikusiko dugu. Hasieran, laugarren milurtekoan, hiri independenteak besterik ez zeuden, eta hiri bakoitzak bere eskualdea besterik ez zuen kontrolatzen. Hiriak handitu ahala, haien arteko borrokak sortu ziren, eta lurraldeko inperioak edo erresumak agertu ziren: akadiarrak edo Babiloniakoak, bigarren milurtekoan.

Beste puntu garrantzitsu bat, laugarrena, erregearen garrantzia da. Mesopotamiako historiaren hasieran, Sumerren garaian, hirien kontrola tenpluaren eskuetan eta apaizen menpe (**En** zuen izena apaizburuak) zegoen. Logikoa da, tenpluetatik hiriaren ekonomia zuzentzen baitzen eta tenpluetan soberakinak pilatzen baitziren, baina, hirien arteko borrokak (**15. irudia**) ugaritu zirenean, militarren garrantzia eta nagusi militarren boterea handitu ziren, eta, amaieran, militar horrek (**Ensi** edo **Lugal**) hiriaren boterea bereganatu zuen. Hortik aurrera (III. milurtekoa), erregea izan zen nagusia erresuma eta inperio guztietan.

Erregea zen estatu indartsuaren burua, eta antolakuntza militar zabala eta boteretsua zuen bere eskuetan. Militarren garrantzia hasieratik nabari daiteke (**16. irudia**) eta Urreko estandarrean edo Lagasheko putreen estelan (edo harrian) ikus daiteke nola borrokatzen ziren K.a. III. milurtekoan. Baina, antolakuntza militarra zabaldu zenean, teknika militarrek eragin korragoak bihurtu ziren, eta asiriarren garaian (K.a. I. milurtekoan) gailurra lortu zuten (**17. irudia**). Teknika militar horiek (arietea edo setiatzeko dorrea, besteak beste) geroago greziarrek eta erromatarrek jarauntsi eta garatu zituzten.

Azkena, baina ez garrantzi txikiagoa duena, **legearen** arloan Mesopotamiatik egindako ekarpena da. Lehen aldiz, gizartean erabilitako arauak bildu eta kaleratu ziren, legea guztiek jakin zezaten. Horren hainbat adibide ditugu, baina aipagarriena Hamurabiren kodea da (**18. irudia**). Han ikus daiteke legearen gogortasuna, jendearen diferentziak legearen aurrean (gizarte-taldearen araberrako desberdintasunak), emakumezkoen egoera, gehien kezkatzen zituzten arazoak, eta abar. Kode horren izaera erakusteko, kodearen puntu bat besterik ez dugu aipatuko: “sendagile batek brontzezko sastakaiaz gizon baten zauri larria sendatzen badu eta gizona hiltzen badu, sendagileari eskuak moztuko dizkiote”. Lege gogorra, argia eta zuzena garai hartako gizartearen isla da.

Kultura

7

Kultura-arloan, Mesopotamian egin zuten aurrerapausorik nabarmenena idazkera da. Zergatik? Mundu modernoan erabiltzen dugun idazkera-sistema delako (fonetiko: 22 fonema [A, B, C, D, E, F, G...] erabiliz, dena idatz dezakegu). Mendebaldeko kultura guztiek idazkera-sistema fonetiko hori erabiltzen dute: ingelesez, frantsesez, euskaraz, gaztelaniaz, alemanez... Hala ere, guk erabiltzen dugun idazkera-sistema bilakaera luze baten ondorioa da, eta bilakaera hori orain dela 6.000 urte baino gehiago hasi zen Mesopotamiaren bihotzean, Uruken.

K.a. laugarren milurtekoan (**19. irudia**), aipatu dugun aldaketa ekonomikoa hasia zen, eta handitze ekonomiko horrek informazioa gordetzeko sistema behar zuen. Horretarako, lehen uneetan, piktogramak (marrazki sinpleak) egiten zituzten. Baina marrazki edo ikur horiek errazteko, ikurrak erabilgarriagoak egiteko eta erabiltzen zuten oinarriari egokitzeko (oholtxo lohiak), idazteko teknika edo era aldatu egin behar zuten. Zurezko punta batez (“cuneus” latinez) lohian egiten zituzten markak, eta, mezua idatzi ondoren, markatutako, idatzitako oholtxoa egosten zuten, eta, horrela, informazioa gorde zezaketan (**20. irudia**).

Hasieran, ikur bakoitzak gauza bat adierazi nahi zuen: piktogramak dira horiek; baina, gauzak eta ideiak adierazteko beharra handitu ahala, gauzak adierazteko eta soinu batzuk esateko ere erabili zituzten ikur batzuk (silabak: “ka”, “gu”, “ab”). Horrela, sistema **silabikoa** sortu zuten. Mesopotamian, zenbait milurtekoetan, sistema silabiko hori erabili zuten, eta K.a. lehen milurtekoan aurrerapauso erabakigarria egin zuten, eta, sistema oso sinplea eta arina izateko nahian, fonemak erabiliz idazten hasi ziren. Bilakaera horren ondorioz, feniziarrek alfabeto fonetiko bat asmatu eta erabili zuten, eta alfabeto horretatik datoz, bai grekoaren alfabetoa, baita latinarena ere (erabiltzen duguna da hori). Idazkeran pentsatzen baldin badugu, Mesopotamiako zibilizazioaren eta gaurko kultura modernoaren arteko lotura erraz ikusiko dugu (**21. irudia**).

Beste zibilizazioetan gertatu zen bezala, nekazaritza eta abeltzaintza garatzeak zientzien garapena ere eskatu edo ekarri zuen. Nekazaritza antolatzeke egutegia nahitaezkoa zen, eta, horretarako, zerua behatu zuten, eta izarrak eta planetak bereizi eta sailkatu zituzten. Ikasketa horien ondorioz, ilargi-egutegia sortu zuten. Aldi berean, uste zuten zeruko objektuak izaki jainkotiarrak zirela eta jendearen bizitzan eragin handia zutela. Horregatik, astroek jendearengan zuten eragina jakiteko, astrologia (eta zodiakoa) asmatu zuten, izarren eta planeten posizioaren arabera etorkizuna iragartzeko.

Ekonomiaren beharretatik datoz beste garapen zientifiko batzuk. Adibidez, garapen ekonomikoak neurtzeko eta zenbatzeko sistema erabilgarriak eskatzen ditu, eta hortik datoz matematikan egindako aurrerapausoak. Mesopotamian ezagutzen dugun zenbaki-sistema hirurogeitarra sortu zuten, baita beste sistema hamartar bat ere. Eta haien kalkulu geometrikoetan π (pi) zenbakia ezagutu zuten.

Kultura-arloan, baina beste eremu batean kokatu behar dira literatura-lanak. Han aurkitutako oholtxoetan ikus daitezke mitoak, elegiak (negarra edo arrangura egiteko idazkia) eta, batez ere, Gilgameshen epopeia (ekintza garrantzitsuak adierazteko eta goraiatzeko kontaketa). Istoria horretan, Gilgamesh erregearen eta haren lankide Enkiduren gorabeherak kontatzen dira. Oholtxo batzuetan, uholde nagusiaren antzeko gertakizuna kontatzen da. Aurrerago kontatzen dira Khumbaba erraldoia hiltzeko arazoak, infernuetara jaitsiera, jainkoen arteko harremanak eta jainkoen arazoak hilkorrekin eta erdi jainkoekin (Gilgamesh, besteak beste). Tarterik garrantzitsuena sentimenduei dagokien, batez ere, Enkiduren heriotzaz hitz egiten denean. Adituek diote literaturaren historian lehen aldiz epopeia horretan aritzen dela hilkor-tasunaz eta hilezkortasunaz (**22. irudia**).

Erljioa

8

Mesopotamiako erlijioaren zentroa tenplua (zigurat) zen. Tenplua edo zigurata piramide mailakatua zen (**23. irudia**). Mesopotamian uste zuten tenplua jainkoentzat bakarrik zela, eta, arrazoi horrengatik, han ez zegoen zeremonia publikorik. Apaizak bakarrik sar zitezkeen tenpluan, jainkoei eta jainkosei eskaintzak egiteko eta zeruko izarrak eta planetak aztertzeke; izan ere, zeruko objektuak izaki jainkotiarrekin lotzen zituzten (**24. irudia**).

Horrez gain, astroen posizioa aztertuz etorkizunaren iragarpena egin zezaketela uste zuten Mesopotamiako apaizek. Horretarako, ahalegin handiak egin zituzten planeten eta izarren mugimenduak behatzeko, eta azterketa zehatz horiek tauletan idatzi zituzten. Horrela, **astro-nomiaren** oinarriak ezarri zituzten, eta, aldi berean, **astrologia** asmatu zuten, jendearen etorkizuna eta etor zitezkeen gertaerak jakiteko. Hortik dator gaur egun horren ezaguna den **zodiakoa** (**25. irudia**).

Baina Mesopotamiako erlijioa ez da astrologia edo etorkizunaren iragarpena bakarrik. Beste lurraldeetan bezala, beren jainko eta jainkosak zituzten; hala ere, Mesopotamian hainbat herriren sinesmenak (batez ere mendebaldeko semitenak eta ekialdeko sumertarrenak), eta hiri bakoitzaren jainkoak eta jainkosak nahasten ziren.

Jainko eta jainkosa horiek hirukoa osatuz adierazten ziren, eta naturaren elementuekin erlazionatzen ziren: **Anu** (zerua), **Enlil** (atmosfera eta ekaitza) eta **Ea** (ura). Hiruko hori zen nagusia. Horren azpian, zeruko astroak agertzen ziren: ilargia (Sin edo **Nanna**), eguzkia (Utu edo **Samash**) eta artizarra (Innana edo **Ishtar**) (**26. irudia**). Garai jakin batzuetan, beste jainko edo jainkosa batek garrantzi handiagoa lortzen zuen, hiri edo herri baten nagusitasuna islatuz. Horrela gertatu zen Mardukekin, Babiloniako jainko nagusia, II. milurtekoaren hasieran (**27. irudia**). Ishtarren (edo Innanaren) garrantzia ere azpimarra daiteke. Guk ezagutzen dugun Venus (edo Afrodita) lotu daiteke jainkosa horrekin, emankortasuna eta erotismoa adierazten baitzuen, eta, haren tenpluetan, gurtza egiteko elementu erotikoko ugari agertzen ziren, prostituzio sakratua (hierogamia) haien artean.

Mesopotamiako beste sinesmen garrantzitsua **iratxoena** zen. Hango jendeak uste zuen jainkoek, gizakiak zigortzeko, iratxo gaiztoak bidaltzen zituztela eta iratxo edo irelu horiek gaiztakeriaren bat sortzen zutela; izurrite bat, adibidez. Iratxoen ekintzak eragozteko eta jainkoen haserrea lasaitzeko, keinu, erritu eta sakrifizio ugari egiten zituzten, bai Mesopotamiako apaizek, baita jende arruntak ere (**28. irudia**).

Mesopotamiako azken erlijio-aldaketak aipamen berezia merezi du. Persiarren garaian (K.a. 500. urtearen inguruan), erlijio mota berri batek nagusitasuna lortu zuen: mazdeismoa edo zoroastrismoa. Erljio horrek aldarrikatzen zuen Ahura Mazda zela jainko bakarra. Monoteismo hori oso ezaugarri berria zen Mesopotamian, eta beste lekuetan gertatutako bila-kaerarekin bat egiten zuen. Mazdeismoak zioen gaizkiaren eta ongiaren arteko borrokak mundua betetzen zuela eta gizakiak ongiaren alde lan egin behar zuela azken juizioa gainditzeko (**29. irudia**).

Erljioari dagokion atalarekin bukatzeko, bi aipamen egin behar dira. Bata erregeen eta erlijioaren arteko harremanari dagokio. Mesopotamian, erlijioak babesten edo legitimatzen du erregearen boterea, baina erregea jainko bihurtu gabe. Beste toki batzuetan, enperadoreen Erroman edo faraoien Egipton, estaturua jainko bihurtu zuten, eta subiranoaren gurtza egin zuten. Hori ez zen gertatu Mesopotamian, eta erlijio-boterea politika-boterea, nolabait, bereizirik mantendu ziren. Beste aipamena Biblian agertzen diren kondairen eta sinesmenen eta Mesopotamiako tradizioen arteko antzekotasunei dagokie (aipatu dugun uholde nagusia edo Babelgo dorrea, adibidez). Zeharkako bide horretatik, mundu osoan zehar zabaldu dira Mesopotamiako kultura-elementu batzuk.

Artea

9

Herri baten artean, herri horren sinesmenak islatzen dira (**30. irudia**); baina, artelanak egitean, herri horretako lurraren ezaugarri fisikoak ere agertzen dira. Horrela gertatzen da Mesopotamiako **arkitekturan**, lur behea, zingiratsua, harririk gabea eta ia basorik eta zuhaitzik gabea ere baitzen. Han, lehengai arruntena lohia zen, eta, lohiaren bidez, lohiari forma emanaz eta egosiz, adreiluak sortzen ziren. Harrigarria da lehengai hain sinpleak erabiliz, hiriak, tenpluak, jauregiak edo dorre mailakatuak eraikitzea. Eta are eta harrigarriagoa da adreiluen bidez egindako apainketak, adreiluak beiratzuz (**31. irudia**).

Tenplu eta dorreak dira Mesopotamiako arkitektura-lanik ezagunenak. Dudarik gabe, zigurrak dira ezagunenak, laugarren milurtekoan agertu baitziren eta hango kultura guztiek erabili baitzituzten haien errituetan. Zigurat batean hainbat maila kopuru aurki daitezke (bitik zazpira), baina normalena zen hiru edo lau izatea. Bestalde, igotzeko eskailerak zeuden, aurrealdean eta alboetan. Goian, santutegia zegoen, errituak eta zeruaren begirapena egiteko. Altuak ziren, eta handienak 20 metro baino garaiagoak ziren. Altuera lortzeko eta goiko pisuei eusteko bi teknika erabili zituzten: bata, murru oso lodiak eraikitzea; eta, bigarrena, **kanoiganga**. Ganga mota hori oso asmakuntza garrantzitsua izan zen, gero herri gehienek erabili baitzuten (**32. irudia**).

Esan dugunez, zigurata da Mesopotamiako eraikuntzarik garrantzitsuena, baina normalean beste egitura baten barruan agertzen zen. Lehenengo milurtekoetan, batez ere **tenpluaren** barruan zegoen zigurata, tenplua hiriko ekonomiaren eta gizarte-bizitzaren zentroa baitzen. Geroago, asiriarren garaian (K.a. lehen milurtekoan) erregearen **jauregiaren** barruan ikus zitezkeen zigurata, jauregia eraikuntza multzo handia baitzen (**33. irudia**).

Eskulturak oso lotura handia zuen erlijioarekin, eta, aldi berean, oso helburu praktikoak betetzen zituen, jainkoen aurrean mandatari bat aurkezteko edo jainkoen babes izateko. Horrelakoak dira adibiderik ezagunenak, batez ere Gudearen eskultura (Lagasheko *patesi* edo mandataria zen) edo Ebih-II intendentea (**34. irudia**). Gudearen eskultura diorita beltzez eginda dago, eta apaiz baten itxura zuen (inoiz ez zuen erregearen titulua onartu, eta bakarrik gobernadore edo *patesi* deitu zuten). Eskultura horretan, xumetasuna da ezaugarriarik aipagarriena, beharbada pertsonaiaren lasaitasuna adierazteko; horrekin batera, frontalitatea, Gudearen jaiera erlijiosoa erakusteko. Ebih-Ilen kasua parekoa da, baina zurruntasun handiagokoa da estatua, eta itxura eta jantziak ere arkaikoagoak dira (adibidez, *kaunakes* edo adatsez egindako apaizen gona luzea janzten zuen).

Beste helburu praktiko bat betetzen zuten **zezen hegodunek**. Androsfinge horiek (gizonaren forma duten esfingeak) gizonaren aurpegia zuten; eta gorputzean, zezenaren, lehoiaren eta arranoaren zatiak. Horrela, izaki indartsuenak erabiliz, erregearen jauregia babesten zutela uste zuten. Zezen hegodunak asiriarrak eta persiarrek egin zituzten, K.a. lehen milurtekoan (**35. irudia**).

Eskultura-arloan oso interesgarria da erliebea. Mesopotamia ezagutzeko baliabide egokia izan daiteke; izan ere, erliebea aztertuz, lana, gerrak edo eguneroko ekintzak ikus daitezke.

Erliebeak, zenbaitetan, oso xumeak izan zitezkeen; esaterako, harria soilik erabiltzen zutenean, hala nola Ur-Nanshe erliebearen kasuan edo putreen harrian. Baina, beste zenbaitetan, oinarri aberatsagoak erabil zitezkeen; adibidez, harri zuriz egindako irudiak hondo beltzaren edo urdinaren gainean (Ur hiriko estandartean lapislazulia erabili zuten kasuan) ipintzen zituztenean (**36. irudia**).

Bi kasuetan, irudiak aurkezteko arau berberak betetzen ziren, adierazkortasuna lortzeko. Arau ikusgarrienak honako hauek ziren: oinak eta hankak soslaiz, eta burua eta begia ere bai. Enborra aurrez aurkezten zuten, eta, normalean, begiaren tamaina handitzen zuten adierazkortasuna handitzeko. Perspektiba hierarkikoa ere erabiltzen zuten, eta pertsonaiaren tamaina haien garrantziaren arabera zen.

Horretaz aparte, esan behar da erliebe horiek informazioz beteta zeudela garai hartako begiraleentzat eta elementu askok esanahi sinboliko handia zeukatela, Hamurabiren kodean ikus daitekeenez. Noizbehinka erliebeen helburua oso praktikoa zen, eta informazio zuzena eman nahi zuten horien bidez. Kasurik argiena asiriarren (K.a. I. milurtekoan) jauregietako erliebeak ziren. Hango paretetan, kanpoko enbaxadoreek asiriarren ekintza militarrik ikus zitzaizkiren, edo asiriarrek menderatutako etsaien amaiera. Kanpokoak beldurtzeko zehaztasunik gogorrenak agerrarazten zituzten asiriarrek (etsaien buruekin egindako piramideak, edo gatibuak enpalatuta, adibidez) (**37. irudia**).

Aipamen berezia merezi dute asiriarrek egindako lehoien ehiza-eszenek; izan ere, ehiza-eszena horiek erregearen boterea eta naturako animalia indartsuenen aurrean erregeak zuen indarra erakusten dute. Aipamen berezia merezi dute, halaber, ehiza-eszenen mezu politikoen-gatik (erregearen indarra eta boterea, batez ere) eta trebetasun teknikoagatik; izan ere, lehoien erliebeetan lehoien mugimendua eta anatomia lantzen zutenean, ez zituzten pertsonaia garrantzitsuenak egiterakoan jarraitu beharreko arauak errespetatu behar (**38. irudia**).

Arte-arloa bukatzeko, adreilu beiratuekin egindako paretak aipatu behar ditugu. Pareta horietan oso kolore biziz egindako gerrariak, animaliek edo asmatutako mamuek (grifoeak) zaintzen zuten erregeen jauregia.

Ondarea

10

Gaurko munduan azaltzen diren arazoen eta garai hartakoen artean ez dago halako alderik, eta, nola edo hala, orain dela 5.000 urte Tigrisen eta Eufratesen arteko lurraldean bizi zirenek ere aurre egin behar zieten arazo horiei. Hori garbi azaltzen da Kramer jakintsuaren liburuan.

Beste adibide batzuen artean, Kramerrek oholtxo batetik maisu gogor baten istorioa ateratzen du. Oholtxoan, ikasle baten arazoak kontatzen dira: eskolako oztopoak, eguneroko martxari jarraitzeko eta kuneiforme idazkera ikasteko zituen zailtasunak eta, gero, maisuak ipinitako zigorrak. Horren ondorioz, ikasleak uste zuen bere jarraipena eskolan arriskuan zegoela. Gazteak aitari kontatu zion zein zen egoera, eta aitak horrela jokatu zuen: maisuari gonbite bat egin zion, eta, etxera etorri zenean, mahaian lekurik onena utzi zioten, mokadurik onenak eskaini zizkioten, ikasleak berak zerbitzariarena egin zuen maisuarentzat eta, amaieran, opari on bat eman zioten. Horrela, bapo jan eta edan ondoren, eta oparia ikusita, maisua poz-pozik sentitu zen, eta goxotasun handiz hitz egin zion ikasleari, eta etorkizun bikaina iragarri zion. Gaur ikaslearen arazo hori ez da ezezaguna, ezta bilatu zuten konponbidea ere.

Mesopotamiaren eta mundu modernoaren arteko loturak erraz aurki ditzakegu. Ikusgarriena zenbatze-sistema hirurogeitarra da, erloju guztietan erabiltzen delako Øegunero, behin baino gehiagotan erlojuari begiratzen dioguØ. Baina sistema hirurogeitarra oso interesgarria da **geometria**-arloan, **angeluak** neurtzeko eta maneiatzeko erabiltzen baita.

Hala ere, Mesopotamiak utzitako ondarea eta herentzia sakonena idazkera izan da. Ez idazkeraren asmakuntza (idazkera kuneiformea) bakarrik, idazkera fonetikoak ere aurrerapauso erraldoia izan zen. Aurrerapauso horren garrantzia ulertzeko, pentsatu behar dugu gaurko munduan, sistema fonetikoaren parean beste sistema batzuk erabiltzen direla; esaterako, sistema silabikoa, sistema silabiko zahar baten ondorengoa dena (txinatarrak, adibidez). Ikasteko eta erabiltzeko desberdinak dira, eta ikasi behar dugunean, hogeita hamar fonema ikastearen eta ehunka ikur oroimenean gordetzearen arteko diferentzia oso handia da. Eta errepikatu behar da sistema fonetikoak Øgaur egun gehien erabiltzen denaØ Mesopotamian, Ugariten (Kanaan) eta Fenizian asmatu zutela, orain dela 3.000 urte baino gehiago.

Idazkeraz aparte, Mesopotamiako beste ondare batzuk ere aipa daitezke. Eremitarraz hitz egiten denean, pentsatzen da antzinatean garapen militar handiena erromatarrek lortu zutela. Eta, alde batetik, hala da infanteria astunaz (legioez) hitz egiten badugu, baina teknika militarrez ari garenean, erraz ikusten da aurrerapauso tekniko asko (setiatzeko prozedurak, adibidez) asiriarren garaian asmatuta zeudela (**39. irudia**).

Bestalde, Mesopotamiak utzi digun ondarea da zodiakoa. Gogoratu behar da egunkari eta aldizkari gehienek zodiakoari orrialde bat eskaintzen diotela eta etorkizuna iragartzen digutela, betiere horretan sinesten badugu, jakina.

Bukatzeko, egokia izango litzateke esatea nola iritsi ziren berrikuntza horiek Ekialdetik Mendebaldera (Asiatik Europara). Dударik gabe, feniziarrek aipatu behar dira. Feniziarrek Europarekin merkataritza ireki zuten, eta, horretarako, hiri edo faktoria ugari sortu zuten Mediterraneoko kostaldean (Kartago, Malaka, Gadir...); hiri horietako batzuek gaur arte iraun dute, eta, nolabait, esan daiteke gaurko europarrek feniziar odol tantaren bat daramatela (**40. irudia**).

Laguntzak

11


Wikipedian aurkitutako hainbat sarrera.

KRAMER, Samuel Noah: *La historia empieza en Sumer*, Orbis argitaletxea, Bartzelona, 1985.

VALLON, Jacqueline: *Libro de las religiones*, Altea argitaletxea, Madril, 1990.

AMIET, Pierre: *La grammaire des formes et des styles*, Office du livre, Fribourg (Suisse), 1981.

AUBET, Maria Eugènia: *Historia universal Planeta*, I. liburukia, Bartzelona, 1991.




1. Antzinako zibilizazioen kronologia



2. Erlojuak 12 ordu ditu eta, segundoak kontatzeko, 60 segundo bigarren esferan.




3. Antzinatea, Herodotoren garaian




4. Bagdadeko tenperaturak eta eurriak




5. Mesopotamiako kronologia



6. Mesopotamiako lurraldea



7. Abeltzaintza, Mesopotamiako zigilu batean



8. Mesopotamiako lurraldeko hiriak eta erresumak



9. Antzinateko labana



10. Fenizia eta feniziarren hedapena




11. Hasierako gurpilak, Ur hiriko estandartean




12. Gizarte-piramidea, Hamurabiren garaian



13. Asiriarren esklabo bat lan egiten



14. Ekialde Hurbileko erresuma eta inperioak



15. Sumerreko putreen estela

































16. Gudaren aldea, Ur hiriko estandartean



17. Asiriar soldaduak borrokatzen



18. Hamurabiren kodea

					SAG Burua
					NINDA Ogia
					CU Jan
					AB Behia
					APIN Goldea
					SUHUR Zamoa
K.a. 3.100 (Urak IV)	3.000 (Urak III)	2.500 (Fara)	2.100 (Ur III)	700	Sumeriera eta euskara

19. Piktograma batzuen bilakaera



20. Idazkera kuneiformea, lohizko oholtxo batean


Idazkera feniziarra	Irakurketa	Itzulpena
<p> 𐤍𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 </p>	<p> ...𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 𐤏𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕𐤏𐤓𐤕 </p>	<p> Feniziar batek (Baalfytu izenekoa) Astarte jainkoari eskerrak ematen dikejo, eskerra bat emon diolake. </p>

A L F A B E T O A	Feniziarra	𐤀 𐤁 𐤂 𐤃 𐤄 𐤅 𐤆 𐤇 𐤈 𐤉 𐤊 𐤋 𐤌 𐤍 𐤎 𐤏 𐤐 𐤑 𐤒 𐤓 𐤔 𐤕 𐤖 𐤗 𐤘 𐤙 𐤚 𐤛 𐤜 𐤝 𐤞 𐤟 𐤠 𐤡 𐤢 𐤣 𐤤 𐤥 𐤦 𐤧 𐤨 𐤩 𐤪 𐤫 𐤬 𐤭 𐤮 𐤯 𐤰 𐤱 𐤲 𐤳 𐤴 𐤵 𐤶 𐤷 𐤸 𐤹 𐤺 𐤻 𐤼 𐤽 𐤾 𐤿
	Grekoa	Α Β Γ Δ Ε Ζ Η Θ Ι Κ Λ Μ Ν Ξ Ο Ρ Π Σ Τ Υ Φ Χ Ψ Ω
	Latinoa	A B C D E F G H I K L M N O P Q R S T


21. Idazkera fonetikoa eta ondorengoak




22. Gilgamesh heroia lehoa menderatzen



23. Zigurat baten hondakinak eta eskema



24. Babelko dorrea, K.o. XVI. mendeko pintura baten arabera (Breughel)



25. Zodiakoaren irudia eta Geminiren Erdi Aroko irudikapena



26. Babiloniako Ishtarren atea



27. Marduk jainkoaren irudia, ustezko animaliarekin



28. Pazuzu, iratxo edo irelu ezagunena, Sumerreko deabruen erregea




29. Aura Mazda jainkoa eta Persiako erregea



30. Hamurabi eta Samash jainkoa




31. Asiriarr erliebeen naturaltasuna



32. Mesopotamiako ganga egiteko pausoak



33. Babiloniako ustezko berreraikitzea eta jauregi baten eskema



34. Lagasheko Gudea eta Ebil-II intendentea




35. Louvreko asiriarr zezen hegoduna



36. Ur-Nansheren botozko plaka



37. Asiriako errege baten erliebea





38. Asurbanipal lehoiak ehizatzen



39. Asiriako gerlariak hiri bat setiatzen



40. Googletik ateratako Cádizeko irudiak



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3001-0



9 788445 730010

Salneurria: 14 €